

# noaua

**Udal baratzetan  
izena emateko epea  
zabaldu dute**

**Zubietarrak aste  
honetan murgilduko  
dira Inauteri giroan**

**Igandean, euskarazko  
film proiektzioa  
Sutegin**



Irudia: Usurbilgo Udalak

**Foru Aldundiak  
Troiaiko pasabidearen  
eraikuntza geldiarazi du**

# Iguarte

SAGARDOTEGIA

IREKIERA EKITALDIA:  
OTSAILAREN 3AN!!!  
**ZATOZI!**

Afaria eta musika zuzenean: PSICOACUSTIC taldea, 23:00etatik aurrera



URBIL gune komertzialaren ondoan.

**URTE OSOAN ZABALIK**

·Eguneko menua ·Kaxuelitak ·Sagardotegiko menua  
·Kudrilentzako menuak, prezio egokitan

iguartesagardotegia@gmail.com. Tel.: 658 435 160 Asteasu poligonoa, Iguarte, 11. USURBIL



**OTSAILAREN 4TIK AURRERA OBRENGATIK ITXITA.  
LASTER BERRIRO IZANGO GARA ZUREKIN.  
BARKATU ERAGOZPENAK!**



## Albiste iruditzen

# Ugartondoko etxebizitzak, zozketatuak

Urtarrilaren 25ean zozketatu zituen Usurbilgo Udalak Ugartondoko babes ofizialeko 46 etxebizitzak eta 46 etxebizitza tasatuak Oiardo Kiroldegian egin zuten ekitaldian. Zozketa eginda, Ugartondoko etxebizitzak behin behinean esleitu dira.

Orain, iazko ekainaren 27an Usurbilgo Udaleko udalbatzak onartutako etxebizitzon esleipen oinarri jarraiki, behin behingo esleipendunen zerrenda udal txeko iragarki-taulan jarriko dute ikusgai. Bestalde, "gerta daitezkeen ukoen edo oinarri hauetan ezarritako baldintzak ez betetzearen ondoriozko hutsuneak betetzeko, Kupo bakoitzerako itzarote-zerrenda bat osatuko da, eragin guztietarako".



Kiroldegian egin ziren etxebizitza tasatu eta babestuen zozketak.

## Laburrean

### Aginaga Sagardotegiaren urteurren ospakizuna

26 urte bete ditu Aginaga Sagardotegiak. Aurreko urteetan bezalaxe, ospakizun afaria antolatu dute. Ostiral honetan (otsailak 2), egingo dute urteurren afaria. 20:00etatik aurrera hasiko dira afariak zerbitzatzen. Iaz bezala, Ostolaza trikitilariak girotuko du afaria.

### Jai Batzordearen lehen bilera, otsailaren 6an

Usurbilgo festak prestatzen hasteko lehen hitzordua deitu du Jai Batzordeak otsailaren 6rako 18:00etan Potxoenean. Festa egunak finkatu eta jaietarako lehen proposamenak bildu nahi dira hitzordu horretan. Norbanako zein eragileei zuzenduriko bilera irekia izango da.

### 1975ean jaiotako bazkaria

1975ean jaiotako bazkaria antolatu dute sagardotegian. Martxoaren 10ean batuko dira, larunbatarekin. Izena emateko deitu edo bestela mezua whatsapp bidez edo mezulari zerbitzutik bidali, zenbaki honetara: 608 045 479 (Igor).

# noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordintzailea:**  
Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaua.eus

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**  
**erredakzioa@noaua.eus:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Ekhi Arrieta.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,  
Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete,  
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,  
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon  
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis  
Elortza, Pello Aranburu, Xabier  
Aranburu, Inma Balda, Luis Arana-  
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen  
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta  
Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Luis Aranalde

## Artze: biziari kanta

1978an etorri nintzen Donostiara. Santo Tomas lizeoan egin nuen lan 30 urtez. Lehenbiziko egunean ikastolako paretan ikusi nuen idatzita Joxean Artzeren esaldi sakon, ezagun eta borobil hura: “hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakigunok hitz egiten ez dugulako baizik”. Hura izan zen nire lehen harremana Joxeanean idazkiekin.

Ikastaroa hasi eta berehala hil zitzaigun Gotzon Aleman irakasle gaztea. Oroigarri bezala Gotzonen argazkiarekin batera Joxeanean poema bat jarri zuten Lizeoko ardura-dunek. Hainbeste gustatu zitzaidan olerki hura, buruz ikasi nuen eta geroztik dozenaka aldiz errezitatu dut eta kantatu ere neronek jarritako musikarekin. Niretzat ebanjelioaren laburpen dotorea da. Joxeanean poesia guztien artean gustukoena bera da. Duela 28 bat urte Aita Gazte-lu poetari omenaldi bat egin

zioten gure herrian. Ni ordu erdi bat lehenago sartu nintzen elizan nire teklatura, bafleak eta abar ipintzeko, izan ere mezarrekin hasten baitzen omenaldi eguna. Zein ikusiko elizan eta Joxean bere brebiarioa leitzen. Estasiatuta zegoela zirudien. Agurtu ondoren galdetu nion: “zer deritzok hire olerki dotore hori elizetan kantatzeari?” “Oso ondo”, erantzun zidan.

Hona hemen aipaturiko poematxo zoragarri hori: “nahiz eta heriotza helduko zaidala jakin / ez dut haatik bere aurka borrokatetik etsiko, / ez nau ustekabeen harrapatuko. / Bizi naizeño, bizi kantatuko dut. / Eta denbora baino lehen hiltzen banaute / nire hortzetan itzaliko den azken antsia / beste batenetan loratuko den lehen irria izango da”.

Hiletetan ez dut uste eman dezakedanik hori baino mezu ederragorik: gure bizitza biziari kantu bihurtzea, alegia. Inoiz galdetu izan didate ea zer esan nahi duen konkretuki

esaldi horrek eta nire erantzuna hau izaten da:

a/ Daukaguna elkarbanatzea, pilatzen ibili ordez.

b/ Bakezaleak izatea: gure arazoak konpontzeko mutur joka ibili beharrean, elkarriketaren eta tolerantziaren bitartez soluzioa bilatzea.

c/ Kausa zuzen guztien alde borrokatzea, axolagabeak izan ordez. Horrela ulertzen dut nik olerki horren mamia.

Usurbilgo San Esteban basilizian testu bibliko bat irakurtzera gonbidatu nuen meza ematen nuen batean. Ordura arte ez dut uste inoiz jabetu nintzenik gure hizkuntzak duen musikaltasunaz. Hura zen pasarte baten irakurketa arte huts bihurtzea. J.S. Bachen “cantata” bat entzuten nengoela iruditu zitzaidan.

Ibaetako mezatara maiz etortzen zen eta badakit gustukoak zituela nire gogoetak. Behin baino gehiagotan adierazi zidan Jainko bilaketa berean murgiltzen ginela biok.

Duela hiruzpalau hilabete aritu ginen kontu kontari Txinparta sagardotegian. Aperitiboa hartzen ari zen Carmen bere emaztearekin. Ez nekien gaixotasunak hain mendean hartua zuenik. Tanatoriora joan nintzenean Carmenek esan zidanez bake-bakean, goxo-goxo joan zen mundu honetatik. Zala-parta handirik ez zuen atera bere bizitzan eta heriotza orduan ere diskrezio osoz agurtu zituen bere ingurukoak.

Joxantonio Ormazabal zaurtarrak idatzi zuen moduan joan haiz, Joxean: “Bizitzaren ilunabarrean/ begiak itxiko ditut/ eta isil-isilik hegan joango naiz/ argiaren bila. /Luzea izango da heriotza bidea, / baina alai, lasaia”.

Facundo Cabral abeslari argentinarrek dio: “No hay muerte, hay mudanza”.

Joxean, hire bizitza berri horretan betiko atsedena opa diat. Eta ahaztu gabe, goraintziak hor.

Luis Aranalde | Garazi Lizaso | Manterola | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

### Ika-mika

## Zorionak!

Primeran landutako zenbakia, aurrekoa, atzera begirakoaz egina eta ondo dokumentatua, idatziz zein grafikoki, hainbeste gaietan, gainera. Txukun jorra-

tutako informazio herrikoia adierazle nabarmena. Zorionak Noaua! Aurrera ederki ua!

**Etxaun.**

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo

elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: otsailak 9. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 5.

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

USURBILGO ATARIA



Zatoz Kopa bat hartzera Txotx egin eta gero...

Gure Elkarte  
~ Santuenea ~

Eguneko menua 10€ - Eramateko aukera! Eskaera egiteko: 686 55 41 45

# Agerreazpiko udal baratzak, maizterren zain

Interesdunek eskaerak udaletxean aurkezteko otsailaren 13a arteko epea izango dute. Agerreazpiko baratzok zozketa publiko bidez esleitu dituzten Usurbilgo Udalak 5 urterako. Deialdi honen oinarriak urtarrilaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak dakartza.

## Helburua

“Agerreazpi eta Olarrondoar baserri ondoan, S-6 Agerreazpi sektoreko EKP 1/1 ekipamenduan, udal baratzen kontzesioa ematea. Kontzesiodunei, soilik beraiei, baimena emango zaie partzela horiek erabili eta ustiatzeko, beti ere Usurbilgo udal baratzeen emakida eta erabilera arautzeko araudiaren arabera”.

## Lehiatzaileak

18 urtetik gora izan, jarduteko gaitasun osoa izan (urritasun psikikoa duten pertsonen kasuan, zaintzailea beharrezkoa izango da) eta Usurbilen erroldatuak daudenak.

Aprobetxamendu epea 5 urterako izango da gehienez.



“Kontzesiodunei, soilik beraiei, baimena emango zaie partzela horiek erabili eta ustiatzeko”.

## AGERREAZPIKO BARATZEAK

**“Eskaerak aurkezteko epea otsailaren 13an amaituko da. Udaletxean bertan tramitatu behar dira”**

### Udal baratzeen partzelak

30 m<sup>2</sup>ko 36 partzela eta 60 m<sup>2</sup>ko 24 partzela.

### Partzelen esleipena

Zozketa publiko bidez egingo

da. Eskaeren artean lehentasun taldea osatuko dute langabetuek, jubilatuek, pentsiodunek, gazteek (gehienez ere 25 urte), familia ugariak, emakumeak eta udal baratzetako konpostatze komunitarioko arduradunek.

Lehen zozketa, lehentasun talde batean dagoenen artean izango da. Ondoren, partzularik esleitzeko balego, gainontzeko eskatzaileen arteko

zozketa izango da.

Zozketa egindakoa, esleipendunak lehendik udal baratzeen erabiltzaileak badira, aurretik lantzen duen udal baratza esleitu zaio, azalera bereko baratza eskatzen badu.

### Eskaeren aurkezpena, otsailaren 13a baino lehen

Usurbilgo Udalean otsailaren 13a baino lehen.

## Esleipena bost urterako egingo da

### Prozedura

- Eskaeren aurkezpena.
- Eskaerak aztertuta, Udalak onartu eta bazterturikoen behin behineko zerrendak argitaratuko dira web orrialdean. Alegazioak aurkezteko 10 egun izango dira.
- Alegazioak aztertu eta erantzun ostean, Udalak onartu eta bazterturikoen behin betiko zerrendak argitaratuko ditu. Bertan, partzelak esleitzeko zozketa publiko egiteko hitzordua finkatuko da.
- Zozketan, partzelak behin behinean esleitu dira. Par-

tzularik eskuratzen ez duten eskatzaileekin itxaron zerrenda osatuko da.

- Behin behineko zerrendak argitaratuko ditu Udalak web orrialdean.

- “Udalak behin behineko adjudikatu zaien pertsonak agiri honetan eta Usurbilgo udal baratzeen emakida eta erabilera arautzeko erregelamendua betetzen duela ziurtatuko du. Horrela izanez gero, Udalak behin betiko esleitu ditu partzelak. Egiaztapenean, behin betiko esleipena ezinezkoa dela ikusiz gero, itxaron zerren-

dan lehenengo dagoen pertsonari eta baldintza guztiak betetzen dituenari esleitu zaio”.

- Partzela bat, esleipen epea amaitzeagatik ez denean hutsik geratzen bada, itxaron zerrendan lehenengo dagoen pertsonak ordezkatu du. Kasu horretan, esleipen epea, 5 urte betetzeko falta dena izango da.

### Partzela eskuratzen dutenek

- Udalak eta Ekoguneak antolaturiko nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaroa egin behar da, “partzelak era

egokian ustiatuko direla bermatzeko”.

- Agerreazpiko udal baratzeen elkartean parte hartu behar da.

- Erabilera kanona, urtero ordenantza fiskaletan jasotakoa izango da. 44,5 euro 30 metro karratuko, 89 euro 60 metro karratuko partzelak ustiatzeagatik.

- “Kontzesiodunak Usurbilgo udal baratzeen emakida eta erabilera arautzeko erregelamenduan eta Agerreazpiko udal baratzen adjudikazio baldintzetan ezarritakoa bete behar da”.

# Troiako pasabidea egiteko dirurik ez duela dio Gipuzkoako Foru Aldundiak

**T**roiako pasabidea aspaldiko aldarrikapen bat da. Behingoz eraikitzen hastekoak zirela zirudienean, ezusteko galanta jaso du Usurbilgo Udalak. Proiektua finantzateko diru faltan dela argudiatuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak bertan behera utzi du egitasmoa. Zubietara edota Lasarte-Oriara oinez edo bizikletaz joateko ohitura duten herritarrek arrisku egoeran jarraituko dute.



Herritar askok erabiltzen dute pasabide hau. Arriskua bikoitza da. Errepidea zeharkatzeaz gain, tren-karrila ere igaro behar delako.

Gai honek zeresan ugari eman du azken urteotan. Eta ez bakarrik Troiako pasabideak. Baita Santuenean eta

Txokoalden direnak ere. Are gehiago, agintedunen zein oposizioko kideen kontsentsua

lortu izan du Usurbilgo udalerean. Baina azken erabakia ez dago udalaren esku.

2014an, udalbatzak aho batez adostu zuen pasabide denak kentzeko mozioa. Udalaren jarrera argia den arren, gai honetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren mende dago.

## Eskuduntzak, Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan

Gogoan hartu behar da N634 errepideko eskuduntza Gipuzkoako Foru Aldundiarena dela. Tren sarearena berriz, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailarena.

Kontuak kontu, urteak aurrera doaz eta arazoak bere horretan jarraitzen du.

## “5.000 biztanletik gorako herrien artean, Usurbil da pasabide gehien duen herria”

Hemeroteka lanak 2014ko martxoaino garamatza. PSE-EE alderdiak gai honi buruzko mozio bat aurkeztu zuen udalerean. Beste udal ordezkarien babesa jaso eta aho batez onartu zen tren pasabideak ezabatzeko mozioa.

Hori gutxi balitz, Gipuzkoako Foru Aldundiako Batzar Nagusiek ere, sozialisten proposamena babestu zuten.

Hiru hilabete beranduago, 2014ko ekainean, PSE-EEK Eusko Jaurlaritzaren jarrera salatu zuen. Tren pasaguneak kentzeko diru partida murriztu egin zuela eta 300.000 mila euro bakarrik aurreikusi zituela Lakuak horrelako lanetarako. Hain zuzen, “diru hori Durangon erabiliko da, Zarabarran eta Alluitzen. Hori dela eta, ezinbestekoa egiten da Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoarekiko

duen konpromisoa adieraztea eta Gipuzkoan egoera berdinean dauden 15 herriak ere kontuan izatea”.

Potxoenean eskainitako agerraldian egin zuen salaketa hau PSE-EEK. “5.000 biztanletik gorako herrien artean, Usurbil da pasabide gehien duen herria eta inbertsio batzuk egiteko ordua dela uste dugu”, Ricardo Crespo zinegotzi sozialistaren hitzak dira horiek. 2014ko ekaina zen eta garai hartan PSE-EEKo zinegotzia zen Crespo. Troiakoaz gain, Santueneko pasabidea eta Txokoalden dagoena ezabatze-ko eskaera egin zuen.

### Bilakaera bitxia

Gauzak zer diren. 2014an, traba Eusko Jaurlaritzatik zetozen. Gipuzkoako Foru Aldundiak, aldiz, pasabideak kentzeko prestutasuna zuen.

2018an, ordea, Eusko Jaurlaritzaren aginduetara den Euskal Trenbide Sarea (ETS) Troiako pasabidearen exekuzioa egiteko prest da. Baina orain, Gipuzkoako Foru Aldundia izan da atzera egin duena. Eta oraingoz behintzat, ez du pasabidea finantzatuko.

Alegia, lau urteren ondoren, arazoak bere horretan jarraitzen du. Burokrazian kateatuta. Eta bitartean, oinezkoak eta txirridulariak, arrisku egoeran.

### 2014an, Udalak aho batez onarturiko mozioa

Arestian esan bezala, Usurbilgo PSE-EEK mozio hau aurkeztu zuen 2014ko martxoan. Udal ordezkari denek aho batez onartu zuten. Honela zioen mozioak: “1. Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari dei egi-



PSE-EEKo ordezkariak 2014an, tren pasabide denak kentzea eskatu zutenean.

ten dio, herrian dauden 8 tren pasaguneak eta nasen arteko pasabidea ezabatzeko. Gure herria Gipuzkoan dagoen tren pasagune gehien duen herria delako eta Euskal Autonomia Erkidegoan bigarrena izanik Euskal trenbide sarean.

2. Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari, Euskal Trenbide Sareari (ETS) eta Eusko Legebiltzarrari akordio honen berri emango dio”.



# Pasabidea defendatzen segiko du Udalak

Egunerokoan asko dira oinez nahiz bizikleta gainean, ondoko irudian duzuen N-634 errepidea eta trenbidea gurutzatzen dutenak Zubieta eta Lasarte-Oria aldera joateko, edo alderantzizko bidea egiteko, Usurbila etortzeko alegia. Pasabide arriskutsua da, ez baitago oinezkoentzako egokitua. Gogoan izan, 2016ko urrian herritar bat hil zen auto batek harrapatuta.

Aspaldiko eskaera da inguruotan segurtasuna bermatzeko eskaera. Pasabide seguru bat eraitzeko proiektu horren gainean elkarlanean jardun dute azken hilabeteotan Usurbilgo Udalaren eskariz, Udalak berak, Euskal Trenbide Sareak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Proiektua exekutatzeko unean zen, ETSren 2018ko aurrekontuetan txertatzeaz, baina diru faltagatik Aldundiak ez finantzatzea erabaki duela berri eman du Udalak. “Diputazioak ez du gaur-gaurkoz proiektu hori diruz lagundu nahi, eta, ondorioz, ezingo da gauzatu”, berri eman du Udalak.

Alkateak Aldundiaren erabakia gaitzetsi du. “Ondo heldutako proiektua dugu esku artean. Azken hilabeteotan lanean aritu gara hiru erakundeok proiektu horretan, eta, ez da bidezkoa orain, azken unean, Diputazioak bazterrean utzi nahi izatea. Egunero herritar ugari erabiltzen dute pasagune hori, eta arriskutsua da oso. Diputazioak usurbildarrak 2. mailako herritartzat gaitu. Ez du proiekturik gure herrirako”.

## Proiektua landua

Udalak proiektu hau gauzatzeko lanean segiko du. Bilera eskatu du dagoeneko Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatuarekin, “proiektuari heldu eta kaxoi batean ez sartzeko eskatzeko”. Alkatearen esanetan, baina, “herriaren laguntza



Troiako pasabide-egitasmoaren foto-muntaia. Udalak sustatu duen proiektuak Ugaldea industriagunerainoko bide-gorria ere aurreikusten du. Irudia: Usurbilgo Udala.

## XABIER ARREGI

**“Diputazioak usurbildarrak 2. mailako herritartzat gaitu. Ez du proiekturik gure herrirako”**

beharko dugu horretarako”.

## Puntu beltzak

Troia parekoa N-634 errepideko nahiz trenbideko puntu beltze-

tako bat da, baina ez bakarra. “Udalak identifikatuak ditu herriko puntu beltzak, eta trenbide- eta errepide-pasaguneetan segurtasuna bermatzeko plan teamendua egina du”.

## Ugaldea industriaguneraino oinez edo bizikletaz iristeko aukera

Troiako pasabideari dagokionez, Udalak eginiko ahaleginen ondorioz, “lortu du ETSk

proiektu bat jartzea mahai gainean (argazkian ikus daiteke). Proiektu horren arabera, errepidearen eta trenbidearen gainetik pasabide bat egingo litzateke, trenbidea eta errepidea modu seguruan eta irisgarrian zeharkatzeko aukera bermatuz. Horrez gainera, Ugaldea industriaguneraino oinez edo bizikletaz iritsi ahal izateko, beste bide bat egitea aurreikusten du”.

# Duela 15 hilabete gizona bat hil zen bertan, auto batek harrapatuta

Asko dira Troiako pasabidea erabiltzen duten oinezkoak eta txirrindulariak. Gehienek Lasarte-Oriara edota Zubieta aldera hurbiltzeko baliatzen dute. Eta alderantziz. Ezustekoak eguneroko ogi dira eta urteotan ezbeharrak ez dira gutxi izan. 2016ko urriaren 11n, Usurbilgo gizon bat hil zen, auto batek harrapatuta.

Troia parean, N-634 errepidea zeharkatzen hasi zenean auto batek harrapatu zuen.



Auto batek Usurbilgo gizon bat harrapatu zuen Troia pareko pasabidean.

Ezbeharra goizeko 06:55 aldera gertatu zen. Anbulantzia bat bertaratu zen, baina

gizona hilda zegoela baieztatu besterik ezin izan zuten egin.

# Goi tentsioko linearen eta erraustegiaren aurkako mendi martxa egin dute

Urtarrilaren 27an Azkorte egindako mendi martxan gogor salatu zuten, erraustegiak eragin ditzakeen kalteak gutxi izan ez eta orain gainera goi tentsioko linea proiektuak ekarriko dituenak. 5 kilometro luze izango ditu. Urnieta, Andoain eta Lasarte zeharkatuko ditu, erraustegiraino, “baso, larre eta nekazaritza lur artean joango da”. Salatu zuten, “40 metroko zabaleran eraikiko diren 132 Kw potentziako zutabeetatik atera nahi dute argindar sarrera, zaborrako errausteagatik sortuko den energia”.



Pasa den larunbatean egin zuten mendi martxa. Parte hartzaileak, Azkorte ermitaren ondoan.

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak mendi martxaren amaieran Lasarteko Okendo plazan egindako ekitaldian adierazi zuenez, “goi tentsioko linea tramitean dago, laster hasiko dituzte lurren desjabe-tzeak. Erraustegiaren obrak berriz martxan, korrika eta presaka dabilta agintaldi honetan amaitu nahian”.

Zubieta gainean, klima aldaketaren aurkako zentroa eraiki nahi dutela eta, “aurpegi latza” behar dela zioten, “berotegi efektuko gasen bigarren isurtzailea” izango den erraustegiaren ondoan

## ERRAUSTEGIAREN AURKAKO MUGIMENDUA

**“Ez dugu atsedunik izango erraustegi toxikoa eta harekin batera eraiki nahi dituzten azpiegitura guztiak gelditu arte”**

kokatzeko. “Badute non iker-tu, eta batez ere non saihestu karbono dioxidoa, nitrogeno oxidoak eta bestelako gas toxikoak isurtzeko. Has daitezela erraustegitik, munduak eta kli-

mak eskertuko die”.

Testuinguru honetan, “ez da amore emateko garaia ordea, lanean jarraitu behar da eta borrokan”. Buruntzaldeko herritarren osasunari “kalte itzela egin diezaiokeen” erraustegia inposatu nahi dutenei adierazi zieten, “ez dugu atsedunik izango erraustegi toxikoa gelditu arte eta harekin batera eraiki nahi dituzten azpiegitura guztiak, besteak beste, goi tentsioko linea. Eutsi eta animo! Errausketari ez, goi tentsioko lineari ez!”.

## Otsailaren 24an, manifestazioa

### Donostian

Hilabete amaierarako finkatu dute berriz mobilizatzeko deia. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak manifestazioa antolatu du otsailaren 24rako (larunbata) 17:30etan Donostian, “Erraustegia gelditu. Birziklapena sustatu” aldarripean.



Errausketa plantaren obrak ikus daitezke Azkorte edota Buruntza menditik. Martxa Lasarte-Oriako Okendo plazan amaitu zuten.



# Lasarteko Landaberri ikastolako kideak: “Ez jolastu gure osasunarekin eta ingurunearekin”

**A**dierazpenok Okendo plazan egin zituzten, Azkorteran eginiko mendi martxatik bueltan, Lasartetik barrena “goi tentsioko linearik ez, erraustegia geratu” aldarripean egin zuten manifestazio amaieran. Txalapartarietara girotu zuten Okendoko ekitaldian parodiarako tartea izan zen, eta 2011ko Zubietako flashmobeko abestia ere dantzatu zuten.

Lasarteko Landaberri Ikastolako kideek ere hartu zuten hitza. Azken asteotan hizpide izan ditugu, ikastolatik 500 metrora eraikitzen ari zaien erraustegiaz kezka agertzen zuten pankartak jarriak zituztelako eta horiek kentzea agindu dietelako Hezkuntza Ordezkaritzak. Larunbateko ekitaldian parte hartu zuen ikasle talde batek argibideak eskatu zituen. “Hondakinak erretzean, dioxinak izeneko partikula kutsakor batzuk botako ditu. Eta guk jakin nahi dugu, hori ez al da txarra osasunerako?”. Eskerrak helarazi zizkieten hezitzaileei haiekiko kezkatua daudela esatearekin batera. Eta agintarientzako mezua: “ez jolastu gure osasunarekin eta ingurunearekin!”.

## Presio handia jasan dutela salatu zuten

Ikasleok atzean zituzten hezitzaileak, hain zuzen Hezkun-



Landaberri Ikastolako kide batzuk oholtzara igo eta euren kezka berri eman zuten mendi martxaren amaieran.

## ERANTZUNAREN ZAIN

**“Aspalditik dabilta, erraustegiarekiko kezka agertzen eta haien osasunean izan dezakeen eraginari buruzko argibideak eskatzen Hezkuntza Ordezkaritzari”**

tza Ordezkaritzak ikastolatik kentzea agindu dien pankartaren bueltan. Presio handia

jasan dutela salatu zuten. Pankarta eskola eremutik kentzea erabaki behar izan dute.

## Erantzunaren zain

Aspalditik dabilta, erraustegiarekiko kezka agertzen eta haien osasunean izan dezakeen eraginari buruzko argibideak eskatzen Hezkuntza Ordezkaritzari. Gutun bidez bitan saiatu dira, baina “erantzunaren zain jarraitzen dugu”. Urtarrilaren 26an Delegaritzan izan ziren, irakasleen %75en sinadurak

entregatzen. Gogorarazi zuten, “pankartak eta hormirudiak adierazpen jardueratzat ditugu. Ikasleekin ere hormirudiak egiten ditugu”. Honez gain, Agenda 21 proiektuan daude, hondakinaren gaia lantzen dabilta aurten. “Ohitura osasuntsuak eta sostengarritasuna ikasleekin lantzen ditugu. Era berean zaborren trataeraren kultura osasuntsua eta sostengarria, murritzeta eta berrabilpena bultzatzen dugu, gure ikasleek esan duten bezala”.



Josue  
Igeltseritza s.l.  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.  
Igeltseritza  
Orokorra  
693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue  
Igeltseritza s.l.  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

# Gidabaimena euskaraz ateratzeak saria dakar Buruntzaldean

**G**idabaimena euskaraz ateratzeak saria du Buruntzaldean, eskualdeko udal eta autoeskolek sektore hau euskalduntzeko egiten ari diren ahaleginari esker. 400 euroko 9 sari zozketatu zituzten urtarrilaren 26an Potxoenean egin zuten ekitaldian, iaz gidabaimenaren zati teorikoa Buruntzaldeko autoeskolaren batean euskaraz atera zutenen artean.



400 euroko 9 sari zozketatu zituzten urtarrilaren 26an Potxoenean. Ekain Manterola Uribe usurbildarra izan da sarituetako bat.

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilen, udalerrri bakoitzean dauden autoeskola adina sari zozketatu zituzten. Segidan dituzue onuradunen izen abizenak. Tartean, saritutako usurbildar bat dago; Ekain Manterola Uribe. Zorionak!

Buruntzaldeko udal eta autoeskolek 2018an egitasmoa sustatzen segitzeko asmoa dute. Maiatzean aurkeztuko dute kanpaina berria. Zorionak

## BURUNTZALDEKO UDALAK

**“Bereziki gazteak dira euskararen aldeko apustua egin dutenak, eta kanpaina hau ere bereziki haiei zuzendua dago”**

helarazi nahi dizkiete sarituei baina baita “ekimen honetan parte hartzen duten denei,

zoriontzeko moduko egitasmo eta ahalegina da”.

Kanpaina hau 2010ean abiatu zutenetik, 18 urtetik gorako 792 herritarrek gainditu dute gidabaimenaren zati teorikoa euskaraz. 2017an 103 lagunek.

Bereziki gazteak dira eremu honetan euskararen aldeko apustua egin dutenak eta kanpaina hau ere bereziki haiei zuzendua dago.

# Mendekotasun Prebentziorako Plana eguneratzeko garaia da

Mendekotasun Prebentziorako lehen planaren indarraldia amaituta, ebaluatu eta berri-tzera doa Usurbilgo Udala. Gai honekiko interesa duten herritar, eragile nahiz taldeekin bideratu nahi dute lanketa hau, “elkarlanean eta esperientziak elkarbanatuz”.

**Otsailaren 15ean, bilera irekia**  
Plan berria osatzeko bilera

ireki bat deitu dute otsailaren 15erako eguerdiko 13:00ean Potxoenean. Interesa duen norbanako edo talde oro gonbidatu dute hitzordura. Hori bai, bilerara bertaratu nahi duenak aurrez jakinarazteko deia egin du Udalak, Gizarte Zerbitzuetara deituta: 943 377 110.

**Agipad elkartearekin batera**  
Planaren idazketa prozesua

Agipad elkarteak dinamizatuko du. “Drogamenpekotasunaren arloan eskarmentu handia duen elkartea da Agipad eta hainbat eta hainbat erakundekin ditu hitzarmenak gai hori lantzeko. Baita Usurbilgo Udalarekin ere”, berri eman dute ohar bidez Udaletik.

**Fenomeno aldakorra**  
Plana eguneratzea ezinbes-

tekotzat ikusi du Udalak, aurrekoaren indarraldia amaituta egoteaz gain, Agipad elkar-tetik nabarmentzen dutenez “drogamenpekotasunaren fenomeno oso aldakorra” delako, “eta, beraz, bere egunean ezarritako proiektuak eta ekintzak aldizka aztertze-ko eta ebaluatzea ezinbesteko-koa da”, udal iturriek aditzera eman dutenez.

## Sarituak

- Andoain: Elixabet Mendizabal Eceiza eta Amaia Armen-dariz Iturralde.
- Astigarraga: Lierni Roteta Artozamunoa.
- Hernani: Xabier Murugarrren Guereñu, Beñat Montero Estensoro eta Nora Bengoe-txea Goikoetxea.
- Lasarte-Oria: Alex Salsamendi Galan.
- Urnieta: Andoni Mugica Izagirre.
- Usurbil: Ekain Manterola Uribe.

## Gidabaimena euskaraz ateratzeko hautua egin dutenak Buruntzaldean

- 2010: 34.
- 2011: 60.
- 2012: 112.
- 2013: 135.
- 2014: 140.
- 2015: 113.
- 2016: 95.
- 2017: 103.
- Guztira: 792.

**Informazio gehiago:**  
buruntzaldea.eus

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**ZENDOIA**  
**ENA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zuhiaurrenea 5



## Ekainaren 10eko giza-kateak Usurbil zeharkatuko du

2014ko ekainaren 8koa izugarria izan zen, ahaztezina. Erronka handia izan zen, baina Gure Esku Dago mugimenduaren deialdiari jarraiki, milaka herritarren borondateak Durangotik Iruñeara 123 kilometro luze zituen giza-katea osatu zuen euskaldunon erabakitze eskubidearen alde.

Aurten esperientzia hura berritzeko aukera izango da. Elkarki eskua ematera animatzen gaituzte berriz, etorkizunari eskua ematera. Baina adi, oraingoan askoz giza-kate luzeagoa izatea nahi du Gure Esku Dago mugimenduak. Marka guztiak hautsiko ditu.

Euskal Herrian inoiz egin den mobilizazio handiena izango dena aurkeztu zuten larunbatean Donostiako Eureka zientzia museoan. Ekainaren 10ean, Donostian abiatu, Bilbo zeharkatu eta Gasteizko Legebiltzarrean amaituko den erabakitze eskubidearen aldeko giza-katea. 201,9 kilometro luze izango ditu. Eta oraingo hau bai, besteak beste, Usurbildik ere igaroko da. “Ekainaren 10ean berriz ere eskua emango diogu elkarki, erabakiari. Herri burujabea izateko orain inoiz baino gehiago,



Ekainaren 10ean, Donostian abiatu, Bilbo zeharkatu eta Gasteizko Legebiltzarrean amaituko da giza-katea.

etorkizuna zu zara”, dio Gure Esku Dago mugimenduak.

### “Hastera goazi!”

Usurbilgo Gure Esku Dago lan taldeak ekainaren 10eko hitzordua prestatzen hastera doala iragarri du egunotan. “Usurbildarrok ere indarrez helduko diogu erronkari! Hastera goazi!”.

Ekainaren 10eko mobilizazioa, Herritarron Ituna eta aurten ospatuko diren herri galdeketak izango dira, “EtorkiZUna” aldarriean bideratuko duten kanpainaren

baitan, Gure Esku Dagoren 2018rako lan ildo nagusiak. “Lau urteko ibilbidearen ondoren, urrats berriak egiteko ordua heldu da. Ziklo berri bat zabaltzera goaz gure herrian”, iragarri du Gure Esku Dagok.

Erabakitze 2019 arrazoi bildu nahi dira guztion artean idaztea nahi duten Herritarron Itunak. “Adostasunetan sakonduz eta kultura demokratiko berria garatuz, zergatik erabaki nahi dugun jasoko du Herritarron Itunak”, aurreratu dute.

Datozen asteotan hiriburuetan ospatzekoak diren mahai

inguruen ostean, “herriz herri edota eskualdez eskualde osatzen joango gara”. Hiriburuetako mahai inguruak streaming bidez ikusteko aukera izango da Sutegin. Urtarrilaren 31n Bilbon ospatu zen “Ongizatea” izenburu zuen saioa.

### Otsailaren 7an, Sutegin

Hurrengo, otsailaren 7an 19:00etan Donostiako Eureka zientzia museoan; “Kultura” hizpide hartuta. Sutegiko erakusketa gelan zuzenean emitituko dute streaming bidez.

## Erabakitze eskubidearen alde

Idatzi ostean, “Herritarron Itunean jasotako edukiak plazaratu eta gure herrian ziklo berria zabalduko duen herri itun bat sustatuko du Gure Esku Dagok. Euskal herriko eragileen artean herri gisa erabakitze behar diren konplizitateak eta adostasunak jostea helburu duen erabakitze eskubi-

dearen aldeko Herri Ituna”.

Euskal herritarrek euren etorkizun politikoa erabaki arte lanean jarraitzeko konpromisoa agertu du Gure Esku Dagok, “eskuz esku elkarlanean, guztiok bat eginda soilik lortuko baitugu Euskal Herrian erabakitzea. Etorkizuna gure esku dago. Eta etorkizuna zu zara, gu gara. Elkarrekin har

dezagun bidea”.

### Egutegia

■ Urtean zehar: erabakitze arrazoiak bilduko dituen Herritarron Itunaren lanketa herri.

■ Maiatza: Herritarron Itunerako arrazoi bilketa festa giroan plazaratzeko, Klik Eguna.

■ Ekainak 10: giza-katea.

■ Hortik aurrera, Herri Itunean jasotako edukiak plazaratu eta sustatzea.

### Informazio gehiago:

gureeskudago.eus  
@GureEskuDago  
@GureEskuDagoU  
Facebook: Gureeskudago/  
Gure Esku Dago Usurbil



# Zubietatik Usurbilera hedatuko da Inauteri festa

**B**adator mozorro festa, Zubietara lehenik larunbatean, lasartearrenkin batera ospatuko dituzten Euskal Inauteriekin. Astebete barru, ikastetxeek hartuko dute lekukoa lehenik. Tartean, aipatzekoa, bereziak izango direla ospakizunok Udarregi Ikastolarentzat. Ikastolak 50 urte beteko ditu aurten. Egitarau berezia osatu dute. Gero herrira zabalduko da festa giroa. Honatx Inauterion harira osatu den egitarau zabala:

## Zubietan

### Euskal Inauteriak Zubietatik Lasartera

#### Otsailak 2, ostirala

■ 19:00-20:00 Zubietako Euskal Inauteriak prestatzeko entsegua Kaxkapen.

#### Otsailak 3, larunbata

■ 11:00-13:00 Sagardotegi kaleetik abiatuta, elkarteetan zehar puska bila.

■ 16:30 Zubietako plazan ekitaldia.

■ 16:45 Zubietatik Lasarteko Okendora kalejira.

■ 17:00 Lasartearren harrera: lasarte-oriatarrek zubietarrei gonbidapen dantza eta zubietarren erantzuna.

■ 17:15 Zubietarren eta lasarte-oriatarren senidetze dantzaldia.

■ 17:30 Kalejira herritik.

■ 19:00 Erromeria eta suaren ekitaldi berritua.

■ Amaitzeko, txokolatada goxoa plazan.

Antolatzaileak: Zubietako herria eta Lasarte-Oriako Tkakun Kultur Elkarteak.

## Ikastetxeetan

### Udarregi Ikastola

#### Otsailak 9, ostirala

■ 10:15ak aldera HHko ikas-



Larunbat honetan, arratsaldeko 16:45ean, Zubietatik Lasarte-Oriara abiatuko dira kalejira.

## INAUTERIAK

**“Ateburu honetan,  
Zubieta aldean topatuko  
duzue jai giroa.  
Datorren astean,  
ikastetxeetan eta  
Usurbilen egingo dira  
mozorro festak”**

leak, urteroko mozorro bitxiekin, herriko frontoira jaitziko dira beraien dantzak egitera. Frontoian 10:30etan. Eguraldi txarra egingo balu, HHko dantza festa Oiarde Kiroldegian ordu berean. Kiroldegira sartzeko sarrera irekia egongo da denentzat.

■ 11:00 2 autoen atzetik, LHko ikasleak eta aurten, DBHko ikasleak LHko ikasleen artean gehituz, urteroko “Martxa” dantzatuko dute herria 2 ibilbideetan zeharkatuz; bat, Kaxko ingurutik eta bestea, Kalezar ingurutik, herritarrak girotuz, herria alaituz...

■ 11:45 DBHko ikasleek be-

raiek antolatutako dantzak eta mozorroak, urtero moduz bikain landuak, aurkeztuko dituzte Oiarde Kiroldegian, LHko ikasleak eta nola ez, DBHko gurasoak gonbidatuz.

■ 15:30 LHko ikasleek gogotsu aurkeztuko dituzte Oiarde Kiroldegian, beraien mozorroak eta dantzak. Hauek baita ere oso ongi landuz, HHko ikasleak eta LHko gurasoak gonbidatuz.

■ Oharra: Udarregitik, DBHko eta LHko gurasoei Oiarde kiroldegira sartzeko sarrerak banatu egingo zaizkie. Hala eta guztiz ere, Kiroldegiko sarreran, soberan geratu diren sarrerak banatzen arituko dira Kiroldegiaren aforoa bete arte. Antolatzailea: Udarregi Ikastola.

### Aginagako Eskola

15:00 Aginagako Eskolako kideen emanaldia Eliza Zaharrean. Unibertsoa hautatu dute mozorroretzeko gaia aurten. Gai honi lotutako koreografiak eskainiko dituzte.

### Zubietako Eskola

■ 15:30 Inauterietako kalejira Zubietako Eskola Txikitik abiatuta, Alamandegin, Barazarren eta Zubietako plazan egingo dituzte geldiuneak. Aurtengo gaia: musikalak. Amaieran, Guraso Elkarteak prestatutako askaria.

## Inauteri festa

### Usurbilen

#### Otsailak 9, ostirala

■ 19:30 Orbeldi Dantza Taldearen emanaldia herrian zehar. Irteera Kiroldegitik.

■ 20:30 Azken saioa Mikel Laboa plazan.

#### Otsailak 10, larunbata

■ Gaia: pertsona ezagunak.

■ 12:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira frontoitik abiatuta, bazkalordura arte.

■ 12:00 Kantu-jira Mikel Laboa plazatik abiatuta.

■ 16:00 Karaoke festa Gaztelekuan. “Mozorrotuta etorri!”.

■ 17:00 Txistulariak, erraldoiak eta buruhandiak udalaxe paretik.

■ 17:30 Bingoa Gaztelekuan.

■ 18:00 Diskofesta Gaztelekuan.

■ 18:30 Burrunbazale txarangarekin kalejira frontoitik.

#### Otsailak 12, astelehena

■ 16:30 Inauterietako tailetarak Bihurri ludotekan.



Otsailaren 10eko festari begira, “Pertsona ezagunak” hautatu da mozorroretzeko motibo gisa.

# Igande honetan Santa Ageda bezperako eskea, Kantu Taldeak antolatuta

**K**antu Taldeak Santa Ageda eskea antolatu du bezperarako, igande honetan, otsailaren 4an. Iluntzeko 19:00etan finkatu dute Mikel Laboa plazan, elkartzeko hitzordua. Gonbita irekia da, herritar oro animatzen dute baserritar jantziak soinean eta makila eskuetan, usadio zahar hau berreskuratu eta abestera.

Otsaila hitzorduz betea du Kantu Taldeak. Santa Ageda bezperan soilik ez, otsailaren 10eko Inauteri Festan ere eguerdiz kalez kale abestera irtengo baitira.



Igande honetan, Mikel Laboa plazatik abiatuko dira, arratsaldeko 19:00etan.

## Usurbilgo Jai Batzordea otsailaren 6an batuko da

Urrun egon daitezkeela pentsatu arren, guztia prest izateko antolaketa lanak garaiz bideratzea ezinbestekoa izaten da. Jai Batzordea uda hasieran Usurbilen ospatuko diren festak antolatzen hastear da. Lehen bilerarako hitzordua finkatu dute jada; otsailaren 6an (asteartea) hain zuzen, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Bilgune irekia da Jai Batzordea, eragile nahiz herritar

orori irekia egoten da. Batzorde honetan hartu ohi dituzte, festen antolakuntzari lotutako erabakiak. Lehen bilera honetan esaterako, festa egunak, datak finkatuko dituzte. Bertaraten direnen ideia eta proposamenak biltzen ere hasi nahi dute. Normalean, otsailean hasi eta maiatza aldera arte hilero biltzen da Jai Batzordea, festen prestaketen hari mutur guztiak ondo lotu arte.

Gogoan izan, bilgune ho-

netatik antolatu ohi dira egitaraua diseinatzeko lehiaketa nahiz txupinazoa nork jaurti erabakitzeko proposamen bilketa ere.

Deitzaileek, bilerok izan ohi duten harrera nabarmentzen dute. "Azken urteetako jai batzordeak oso jendetsuak izan dira, eta emaitza ere, halakoxea izan da, horrenbestez: jai parte-hartzaileak, herrikoiak eta egitarau oparoa", gogorarazten dute.



Otsailaren 6an asteartea, lehen bilera. 18:00etan Potxoenean.

**txirriStra**  
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**ZENDOIA**  
**ENA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zuhiaurrenea 5





# EUSKAL INAUTERIAK

## OTSAILAK 3 · LASARTE-ORIA

11:00-13:00// Sagardotegi kaletik abiatuta,  
elkarteetan zehar **PUSKA BILA**

16:30// Zubietako plazan ekitaldia

16:45// Zubietatik Okendora **KALEJIRA**

17:00// Lasarteoriatarren **HARRERA:**  
Lasarteoriatarren gonbidapen dantza eta zubietarren erantzuna

17:15// Zubietarren eta lasarteoriatarren **SENIDETZE DANTZALDIA**

17:30// Kalejira herritik

19:00// Erromeria eta suaren ekitaldia  
Amaitzeko, **txokolatada** goxoa Okendo plazan



# DATORREN ASTEBURUAN...

## INAUTERIAK 2018 USURBIL

### JOAN PRESTATZEN ZURE MOZORROA...

## Euskal Herriko pertsoneia ospetsuak



Elkartean: Orbeldi dantza taldea, Usurbilgo kantu taldea, Bihurri ludoteka, Gaztelekua eta Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa.





# “Xua Usurbildik 600 km-ra ez balego, gure artean izango zen”

Elkarretaratze berezi eta jendetsua egin zuten urtarrilaren 26an frontoian, Xua, Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga preso haurren urtebetetzea dela eta. Hilaren 19an urtea bete baitzuen Xuak gugandik 600 kilometrorra, gurasoekin partekatzen duen Valentziako Picassent espetxean.

Elkartasun eta maitasun osoz zoriondu zuten usurbildarrek, gozogile sare solidarioen tartan kandelak itzaliz, “Zorionak zuri” abestuz eta bihotzez bereriko talde argazkian. “Ozen zorionduko dugu hemendik, gure berotasuna Picassenteko ziegara helarazteko”, adierazi zuten Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik.

Gogoan izan zuten, salbuespen neurrien ondorioz sorterritik urrun dagoela Xua, gurasoak



Picassent espetxean da Xua eta bere lehen urtebetetzea ospatu zuten frontoian.

bezala. “Usurbildik 600 km-ra ez balego, gure artean izango zen, hemen, bere amona Mari Karmenekin. Tamalez ez da horrela”, gogorarazi zuten.

## Senide nagusi eta gaixorik daudenen errealitatea

Urteko hileroko lehen mobilizazioa, Sarek urtarrilaren 13an Bilbon deitu eta milaka herritar batu zituen mobilizazioaren

ostean dator. Eta preso eta iheslarien eskubideen aldeko manifestazio honekin batera, Frantziako Gobernuak estatu horretan diren euskal presoak hurbiltzen hasiko den zurrumurua zabaldu denean. “Presoak gerturatzeko abian diren zurrumuru eta aurreikuspenen aurrean, ordea, zuhur mantentzen gara. Seguru dakigun gauza bakarra zera da,

lanean jarraitu behar dugula salbuespenezko neurri krudelekin lehenbailehen bukatzeko”, adierazi zuten frontoiko mobilizazioan.

Aurreko ostiraleko mobilizazioa gainera, Etxerat-ek kanpaina berria aurkeztu zuen egun berean egokitu zen. Espetxe politikaren ondorioak ezagutzera emateko egitasmo orokorragoaren baitan, eta “Motxiladun umeen” errealitatea plazaratu ostean, aurrerantzean adin nagusiko eta gaixorik dauden senideak eta dispertsioa ezagutarazteko lanketari ekingo diote. “Urrunketak pertsona ahulenengan duen eragina jakinaraztea dugu helburu eta datozen hilabeteetan euren errealitatea ezagutarazteko hainbat ekimen egingo ditugu”, iragarri dute.



Usurbilgo Kantu Taldeak urteko lehen jira osatu zuen aurreko larunbatean. Duela hiru aste zendu zen Joxan Artze eta haren omenez ‘Gure bazterrak’ kantarekin hasi zuten saioa.

## Otsailaren 9an amaituko da ikastetxeetako aurrematrikulazioa

2018-19 ikasturterako aurrematrikulazioa bideratzeko epea zabalik da Udarrigi Ikastolan, Aginaga eta Zubietako Eskoletan. Bi asteko tartea egongo da: urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra.

Otsailaren 8ra arte, aurrematrikulazioa Internet bidez egin asmo dutenentzat.

AMA, EZ LARRITU TA DEITU XABIERRI, ETXETRESNAK KONPONTZEN DITU  
645 417 665

Josue  
Igeltseritza s

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.

Igeltseritza  
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue  
Igeltseritza s

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

# Erronka, erabilera suspertzea

Euskararen erabilera izan den beherakadak kezkatuta, geure hizkuntza ahotan gehiagotan hartzea sustatzeko elkarlanari ekin diote hainbat herri eragileek, Euskal Herri luze zabalean

aurten bideratuko den Euskaraldia ekimenaren testuinguruan. Ekarpenak eta bidelagun gehiago erakartzeko herritar orontzat irekia izango den bilera deitute otsailaren 7rako 18:00etan

Potxoenean. Erabakia, duela bi aste herriko hainbat eragileek eginiko bilkuran hartu zuten. Hitzordu hartan parte hartu zuten zenbait herritar elkarrizketatu ditugu lerrootan.

## Inkesta

**1-Euskararen kaleko erabilerak beherantz egin du azken datuen arabera. Nola ikusten duzu Usurbilgo egoera soziolinguistikoa?**

**2-Euskaraldia antolatzeke lanak abiatu dituzue. Zer iruditzen zaizu ekimen hau? Zer ekarpen egin nahi zenukete?**

**3-Euskaraldiaz haratago, euskararen erabilera suspertzeko eta lanketa honetan sakontzeko beharra ikusten duzu?**

## Olatz Urdanpilleta Etumeta AEK euskaltegia:

### “Datuak ez dira hain txarrak baina arreta jartzeko modukoak dira”

1-Emaitzak besteetan baino kaxkarragoak badira ere ez dira hain txarrak. Baina arreta jartzeko datuak dira. Beherakada horren aurrean herriak potentziala badu, euskaldun oso asko dago. Gazte eta haur guztiak dakite euskaraz, motibazioan legoke gakoa. Motibazio hori suspertzeko euskararen balioaren harrotasun hori indartzera bideratu beharko lirake zenbait ekintza. Euskaraz jakin arren, erdaraz hitz egiten dutenek askotan ohituraz egiten dute. Ohitura horiek aldatzea ez da hain zaila izaten, ahalegin txiki bat eginez gero. Baina ahalegin txiki hori egiteko prest egon behar dugu.

2-Euskararen erabilera areagotzea helburu duen Euskaraldia izugarri ona iruditzen zaigu euskaltegi gisa. Iaz, haurren artean erdaraz hitz egiteko jarrera handiagoa zegoela ikusirik, gurusoak euskalduntzeko taldea osatu genuen ikastolan. Aurten ere saiatu gara baina ez da osatu. Aukera horrek urtero hor egon behar luke. Usurbilen beste edozein premia ikusiko balitz eta euskaltegiaren beharra horretarako, ate guztiak irekiak ditugu.

3-Bakoitzak bere aldetik egingo duenak indarra izango du, baina elkarlanean denok batera egindakoak ehun aldiz gehiago. Denon lana da. Honi



jarraipen bat eman behar zaio, herriak bere egin, honi buruz hitz egin eta plangintza bat egin: ikusi zer komeni zaion herriari, non dauden zuloak, non eragin daitekeen, nola eta ze guneetan. Denok euskaraz normaltasunez aritu arte, proiektuok sekula ez lukete bukaerarik behar.

## Jurgi Fuentes, Bota Punttuba: “Arnasgune bat da Usurbil”

1-Kanpotik Usurbila bizitzera etorritakoa naiz eta herria arnasgune bat dela igar-



tzen da. Euskaraz asko erabiltzen da, erraztasun handiz. Baina erosotasunean erori dela uste dut, eta ez dela kontziente erabiltzen den hizkuntza. Horrek eragiten du euskaraz dabilen bat elkarrizketa berean erdarara pasatzea edo gauza batzuk erdaraz esan, beste batzuk euskaraz adieraztea. Kontzientzia pizteak edo euskararekiko militantzia horrek asko hobetu dezake dugun egoera. Hurrengo belaunaldien eredu gara, kontuan hartzekoa dela uste dut.

2-Lagunak eta kontziente egiteko baliagarria izango da. Zaila ikusten dut jendearengana heldu eta jendea gogotsu inplikatzeko, baina pixkanaka egin beharko da.

3-Ondo ikusten dut batzorde egonkor bat egotea, baina beti epe labur edo ertaineko helburuak finkatuta, bestela jendea aspertu liteke. Euskaraldia ondo etorriko da, ia bilguneak ondo funtzionatzen duen jakiteko ere.

## Udarregi Ikastolako HIZPRO Taldea: “Hausnarketatik hasita, ekintzetara egin behar da jauzi”

1-Azkeneko erabilera datuen arabera erabilerak behera egin du baina euskaraz kalean gero eta gutxiago entzuten den susmoa eta kezka aspalditik dugu. Ikastolan, ezagutzaren eta erabileraren galdeketa egin izan ditugu eta jasotako datuak kezkarriak izan dira; izan ere, erabileraren beherakada dagoela adierazten dute. Esaterako, euskaraz oso ondo moldatzen diren guruso askok, seme-alaben

presentziarik gabe gaztekeraz hitz egiten dutela azaltzen dute. 2-Euskaraldia ekimena, herritarren jarrera eta jokabideen inguruan hausnarketa egiteko baliagarria izango da eta noski, gure alea jarriko dugu baina ekintza puntual batek ez ditu erabilera datuak aldatuko. Barneratuta dauden ohiturak aldatzeko ahalegin bat egin beharra dago jokabide-aldaketaren arrazoiak eta hartu beharreko

erabakiak garbi izateaz gain, haiekin bat egin behar dugu. Lortu behar dugu aldia gero eta zabalago eta iraunkorragoa izatea, gure bizitzetan egiteko modu sistematikoa bihurtu dadin “aldirako” planteatuko duguna. 3-Bai. Erabileran eragiteko ekintza asko egin izan dira baina oso gutxi, gaiaren inguruan, kezka dugun eragile guztiok elkartuta eginikoak. Guztion ekarpenekin, egunerokotasu-

nean, herritarren erabilera suspertzen asma genezake. Honela, jarrerak eta jokabideak adostu genitzake eguneroko egoera zehatzetan aurkitzen garenean guztiok modu berean erantzuteko (euskararen erabilera areagotzen lagundu dezaketena). Hausnarketatik hasita ekintzetara egin beharreko jauzia da. Ezagutza ez da nahikoa, erabilera sustatu behar dugu.

## Mikel Usabiaga, Kantu Taldea:

# “Oso beharrezkoa da gure hizkuntzaren eta oro har, kulturaren bilgune sustatzaile bat sortzea”

1-Hiztunak lortzen ditugun arren erabilera beherantz doa. Belarriak erne jartzea nahikoa da honetaz konturatzeko. Esaterako, ikastolako ikasleek, askotan, beren gurasoak (tardean ikastolako ikasle izan direnak) beren artean gazteleraz ari dira entzuten dituzte edo tabernan nahiz sarritan, telebista, irratia, musika gazteleraz bizi dute. Inguruan euskaraz bizi ez den herritarren giroa nabaritzean, edo eta, ikastolako eguneroko hizkuntza horren prestigiorik kalean sumatzen ez dutenean, belaunaldi berri hauei, zaila egiten zaie kaleko komunikazio naturalean txertatzea, ondorioz, hizkuntzaren funtzio ez akademikoa ez dute behar bezala garatuko. Berdin gertatzen zaie AEKtik datozen euskaldun berriei. Helduon artean, sarritan, gazteleraz eta euskaraz nahastutako mintzaera barra-barra erabiltzen dugu, euskañolez alegia.



Egoera soziolinguistiko honen ardura denona da, noski. Ordea, ardura batzuek ez dute eraginkortasun berdina. Esaterako, zerbitzu mota guztietako langileek beren eguneroko lanean euskaraz bizitzeko ohitura izateak berebiziko garrantzia eta eragina izango luke hizkuntzaren erabilpenean. Bestalde, Km 0-ko erosketak egitearen garrantziaz badirudi

ari gabela konturatzen, ordea, gure hizkuntza, musika, kantua, kirola, artea,... Km 0-koak kontsumitzeaz ez hainbeste, eta kontsumo honek, besteak beste, gure euskaldun izatearen nortasuna garatzea lekarke.

2- Ilusioz hartu dugu ekimen hau Kantu Taldean. Gure helburu nagusia Euskal Kantuen Transmisioa hedatzea da eta gure artean euskaraz bizitzeko ohitura areagotzea eta sendotzea. Bestetik, Euskaraldiari bultzada bat emanez auzolanean aritzeko prestutasuna azaldu nahi genuke, euskaraz eta euskal kantutik ekarpenak eginez.

3-Oso beharrezkoa da, auzolanean, herritarren artean, gure hizkuntzaren eta oro har, kulturaren bilgune sustatzaile bat sortzea. Usurbil, Euskararen arnasmune bilakatzen lagunduko duela uste dugu bilguneak.

## Ixabel Agirresarobe, Artixten Taldea: “Kezkatzen nau haurren artean eta guraso euskaldunen artean erdaraz hitz egiteko dagoen ohiturak”

1-Zorionez uste baino datu hobeak dira, inpresioa baitut euskara gutxiago erabiltzen dela kalean. Gazteen artean erabat entzuten dut euskara eta zoragarria da. Horrek aurrera begiratzera animatzen gaitu. Baina kezkatzen nau haurren artean ematen den erabilera eta guraso euskaldunen artean erdaraz hitz egiteko dagoen ohiturak. Nire belaunaldikoak dira, jakin nahi nuke zergatik dauden halako desberdintasunak nire belaunaldikoen artean, leku berean jaiok izanda.

2- Asmo oneko ekimena da, baina sinbolikoagoa nire ikuspuntutik. Halere, intentzio on guztiak ongi etorriak izango



dira, noski baietz. Beharra ikusi badute eta gure hizkuntza hainbeste maite dugunez, zerbait egin beharko dugu.

3-Egin beharko da lanketa

sakonagoa. Potxoenean biltzeko deia egin denean, beharra dagoela esan nahi du. Neure aldetik ahal dudana guztia egingo dut.

## Alaitz Aizpurua Usurbilgo Udala: “Ezinbestekoa da elkarrekin aritzea”

1- Erne egon beharra dugu. Azken bi hamarkadetak goranzko joeraren ostean, beherakada eman da



azken azterketan. Arnasmuneetan ematen ari den fenomeno da. Usurbilen euskaldunak izan garenez beti, dena eginda dagoen sentsazio hori bada. Baina ez da hala eta ezin dugu lasaitu. Transmisioa, hizkuntzarekiko afektibitatea... hori guztia landu behar da. Ezin gara lasaitu, herri euskaldun izateari utzi diezaiokegu bestela.

2-Erabilera izan den beherakadaren kezkatik abiatuta, eta ezagutza datuek erakusten duten moduan, potentziala dagoela ikusita, Udaletik bi helburu aipatzen genituen Euskaraldiaren harira; hizkuntza ohitura aldatetean eragin eta euskaldunon sarea aktibatu beharra. Helburuok betetzeko lanketan, argi dugu ezinbestekoa dela administrazioa, eragile eta herritarrak elkarrekin aritzea.

3-Euskaraldia aitzakia polit bat izan zitekeela ikusi dugu. Batzuetan halako gaitetan hausnartzen hasten gara, baina zehaztasunetara iristea kosta egiten da. Euskaraldia Euskal Herri mailako ekimen zehatz bat izanik, aitzakia ederra da euskararen erabileraren inguruan martxan jarri eta taldetxo bat osatzeko. Elkartu, konfiantza giroa sortu eta ahalik eta emankorra izan dadin abiapuntua. Euskalgintzan beti dago zer eginga, zoritxarrez euskararen normalizazioa ez da gaur egungo errealitate bat. Askok egin liteke.



# Gutxieneko laguntza bildu arren, kide gehiago behar ditu Hitzartuk

Lortu dute, Hitzartu eskuhartze prozesua abiatzeko gutxieneko beharrezko laguntza (10.000 euro) jaso dute. Baita muga hori gainditu ere. Aste hasiera honetan jada ia 15.000 euro bilduak zituzten. Ekarpene ekonomikoak egin dituzten guztiak eskertu dituzte Hitzarturen sustatzaileek.

Halere parte hartze prozesua finantzatzen segitzeko deia egiten dute, gogorartzen dutenez, 80.000 euro beharrezkoak baitira prozesua bere osotasunean garatu ahal izateko. “Oraindik gutxi gara. Egin zaitez Hitzartukide, adostasuna eta demokrazia sendoago baten alde!”.

## Diru ekarpenak nola egin

Hurrengo bi asteotarako erronka berri bat finkatu dute: 35.000 euro eskuratzea.



Hitzarturen sustatzaileek ekarpen ekonomikoak egin dituzten guztiak eskertu dituzte.

## DIRU EKARPENAK

**Helbide honetan, itsulapikoa.eus atarian sartuta egin ditzakezue 5, 10, 20 edota 50 eurotik gorako diru ekarpenak**

Helbide honetan, [www.itsulapikoa.eus](http://www.itsulapikoa.eus) atarian sartuta egin ditzakezue 5, 10, 20 edota 50 eurotik gorako diru ekarpenak.

Zuen diru ekarpenak bide honetatik ere egin ditzakezue:

ES05 3035 0140 33 1400031124

## Seigarren kidea Berme Batzordean

Besteak beste, hondakinen kudeaketarekin dugun arazoa gipuzkoarrei hitza emanez, adostasunez konpontzea helburu izango du Hitzartuk. Abiatzear den eskuhartze prozesurako Berme Batzordea eratu dute. Abenduan Donostian egin zuten aurkezpenean, taldea bost kide, bost aditu ezagunek osatuko zutela iragarri zuten: Pedro Ibarra Güell (Getxo), Ernesto Ganuza Fernandez (Madril), Juan Jose Alvarez Rubio (Zumaia), Garbiñe Biurrun Mancisidor (Tolosa) eta Bernardo Atxaga (Asteasu). Orain seigarren kidea batu zaie taldera; Esther Larrañaga Galdos (Bergara).

## Informazio gehiago:

hitzartu.eus  
hitzartu@hitzartu.eus  
Twitter: @Hitzartukide  
Facebook: Hitzartukide

## Argia Sariak Atxega jauregian banatu zituzten

Azken urteotan bezala, Atxega Jauregian banatu zituzten urtarrilaren 26an Argia Sariak. Euskarazko komunikazioa goraiatzea helburu duen hitzordu honetan saritu dituztenak dituzte segidan:

■ **Prensa idatzia:** “Harmaila” kirol aldizkari berria, Eñaut Barandiaran, Aitor Manterola eta Iñaki Berastegi.

■ **Ikus-entzunezko saria:** Uxue Alberdi eta Aitzol Barandiaran, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiari ETB-k eginiko jarraipenagatik.

■ **Irratia:** Jokin Aldazabal, Euskadi Irratiko “Ekosfera” saioa.



Saritu gehienak ageri dira argazkian. Irudia: Argia.

■ **Internet:** Gabi de la Maza, Youtubeko “Txantxangorria” kanaleko arduraduna.

■ **Sustapen ekintza:** Iruñeko Udala, “Eraso sexistarik gabe,

Iruñea aske” ekimenaren komunikazio estrategiatatik.

■ **Merezimenduzko bi sari:** Pirritx, Porrotx eta Marimotots; Bakearen Artisauak.

## ‘Sagarrondotik Sagardora’ ikastaro praktikoa

Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak “Sagarrondotik sagardora” zikloa antolatu du otsailetik irailera. Zortzi saio aurreikusi dituzte. Lehen saioa otsailaren 10ean izango da. Ikastaro osoa Potxoenean burutuko da, kimaketa praktikak izan ezik, hauek “bertako sagastietan egingo dira”, ohar-tarazi du antolakuntzak.

## Izen ematea eta argibide gehiago jasotzeko:

943 361 114  
alkartasuna@usurbil.com  
alkartasuna.eus/euskara/produktuak/ikastaroak

# Ehunka kirolari Irisasi BTT proban

Izena egoki jarria dio Irisasi BTT-k urte garai honetan antolatu ohi duen kirol probari; "Hotzak Akabatzen". Hotz esnatu baitzen urtarrilaren 28a, lanbro artean. Azken asteotako euriteekin mendi bideak ere lokaztuak aurkituko zituzten, baina horren guztiaren gainetik dago gustuko duten kirol jardueraz gozatzeko duten gogoia.

Aurreko edizioen ildotik ehunka kirolari batu ziren igande goizean Mikel Laboa plazan, Irisasi BTT "Hotzak Akabatzen" proban parte hartzera. Tartean hamarnaka usurbildar.

## Omenalditxo

Abendu hasieran zendu zen Pablo de Sosa Salinas gaztea gogoan izan zuen antolakuntzak proba hasieran. Bere gurasoek izan zuten proba hasteko zinta mozteko ohorea. Lore sorta ederra jaso zuten antolakuntzaren aldetik.



Abendu hasieran zendu zen Pablo de Sosa Salinas gaztea gogoan izan zuen antolakuntzak. Proba hasieran lore sorta eman zieten gurasoek.

## Miriam Arrillaga, Euskal Herriko pala txapelkun

Jubenil mailako Euskal Herriko txapelketa dugu Miriam Arrillaga herritarra, Leire Galdosekin batera Iruñeko Mendillorri taldearen aurkako finala 30-21 irabazi ostean. Argazkian, Errekaleor taldeko lehendakaria eta Reyes Bergara taldeko entrenatzailea garraileekin.



Leire Galdosekin batera irabazi zuen txapelketa.

## Eskubaloitardak Oiaro Kiroldegian

### Otsailak 3, larunbata

- 10:30 Infantil neska, Gipuzkoa: Udarregi B-Eibar C
- 11:45 Infantil mutilak, Gipuzkoa: Udarregi B-Egia 2
- 17:30 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Elgoibar
- 19:30 Senior mutilak, 1. Nazionala: Usurbil K.E.-Maristas

## Futbol partidak

### Hararen

#### Otsailak 3, larunbata

- 09:30 Alebin neska: Udarregi 5B-Urnieta 6
- 10:30 Infantil mutilak: Usurbil F.T.-Amara Berri K.E. B
- 12:00 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Sporting Herrera A
- 16:00 Jubenil mutilak: Usurbil F.T.-Vasconia C.D.

## Euskal Ligan segiko dute jubentilek

"Bermeo eta Zumaian jolas-tutako faseetan bikain moldatu dira Usurbilgo bi taldeak. Bi taldeek partidarik galdu bukatu zuten asteburua. Bi garaipen eta berdinketa bat izan zen euren amaierako balantzea", berri eman du Usurbil Kirol Elkarteak. Ondorioz, Euskal Ligan segiko dute jubentil taldeek.

### Errifa zozketa

Usurbil Kirol Elkarteak antolatuta urtarrilaren 27an egin zuten errifa zozketako zenbaki saritua, 1.169 izan da. Zenbaki honen jabeari, 2 laguntzako otordua egokitu zaio Patri jate-txean.

**Patri**  
Patri maila  
larietxea

· bazkariak EGUNERO  
· afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

RPS: 28/17

## ETXEBIZITZA

## Salgai

90 m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m<sup>2</sup>- terraza, 8 m<sup>2</sup> trastelekua eta bertan 33 m<sup>2</sup>-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Atikoa salgai garajea eta trastelekuarekin. Tel. 665 720 913

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berrituta. 359.000 euro. 679002101.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m<sup>2</sup> trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Ge-

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

hienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

## Alokairuan

Pisua edo gela alokatzen da Santuenean. Oso ondo dago. 667 912 307 / 626 428 463 / 607 668 603

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil.

Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garaiek

Peugeot Partner bat salgai. Diesela. 110 zaldi. 2009. urtekoa. 140.000 km. 665 71 53 21

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekabixi 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat

erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeak karnetarekin gidatu daitezke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilind. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Zubietan, goizetan etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Lernaldi erdia. Tel. 695 783 202

Zerbitzari bat behar da, karta-rekin lan egiteko. Larunbat eta igande eguerditan, lan egin nahi baduzu: 680 483 164

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziakin. Tel. 632 576 258

Pertsona helduak zaintzen lan egingo lukeen mutil bat naiz. Larunbat eta igandetan, esperientzia daukat. Tel. 632 793 747

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herriar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo aste-burutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo aste-burutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garaiek, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.



## Zorionak Julen!

Otsailaren batean hamaika urte beteko dituzu. Muxu asko familia guztiaren partez. Asko maite zaitugu.



Oso ondo pasa genuen zure urtebetetze egunean.

Zorionak denon partez!



Zorionak Juantxo eta Xabi, biak urtarillaren 27an urteak bete zenituzten, ondo ospatu genuen elkarrekin! Datorren urtean, berriro ospatzeko moduan! Etxekoan partez.



## Zorionak Xua!

Zure lehen urtebetetzea ospatu dugu pilo bat tarta goxo-goxoekin. Datorren urtean igual gurekin ospatuko duzu. Zain gaukaz. Muxu potoloak!



## Zorionak Mikel!

Ondo ospatu Santa Ageda bezperan beteko dituzun 13 urte zoragarri horiek, muxuk etxeokoa partetik!



Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauzez zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportunitate umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenerik ostiralerara. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketari lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak

zaintzeko edo garbiketari lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauzez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke or-

duka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldareren ezagutzak). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak

zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldari lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

## BESTELAKOAK

Klase partikularrak emateko pertsona baten bila gabiltza Aginagan. Batxilerra lehenengo maila. Matematika eta kimika. 609 367 952.

Klase partikularrak eskaintzen dira, akademikoak eta gitarraoak. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 634 412 687 (Josu).

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Irailaren 20an, goizeko 9:30ean Donostiara doan Usurbilgo autobus geltokian poltsa gorri batean galtza bakero batzuk utzi nituen. Norbaitek ikusi edo hartu badu deitu, 657 711 335 (Maite).

Irailaren 13an kaketua txiki bat (ninf) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatu gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. Telefono zenbakia: 637 974 994

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

## TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunear. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralerara: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitagia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 01** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 02** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 03** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 04** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 05** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteartea 06** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteazkena 07** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

## Otsailak 01 - Otsailak 11

**Osteguna 08** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 09** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 10** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 11** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda urtarrila

## 02 ostirala

- Zubietako Euskal Inauteriak prestatzeko saioa. 19:00-20:00 Zubietako Kaxkapen.
- EH-ko Mus txapelketa Aitzagan. 22:00. Izen ematea: 21:30-22:00.

## 03 larunbata

- "Gorputzaldiak" saioa gurasoentzat. 10:00-12:00 Udarregi Ikastolako jangelan.
- Euskal Inauteriak, Zubietatik Lasartera. ikus 12 or.


## 04 igandea

- Haurrentzako zinea: "Igelen erresuma". 17:00etan Sutegiko auditorioan.
- Santa Ageda eskea. 19:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuko da.

## "Igelen erresuma", igande honetan haurrentzako zinea Sutegin

Igande honetan, euskarazko film bat Sutegin. Udalak eta Ziortza Gazte Elkartek elkarrekin antolatzen duten zikloan, "Igelen erresuma" filma proiektatuko dute. 17:00etatik aurrera, Sutegin. Sarrerak ohi bezala, 3 eurotan izango dira egunean bertan kultur etxean salgai.

"Igelen Erregeak Igelolinpiar Jokoen garailea bere alabarekin ezkonduko dela iragarri ostean, printzesak ihes egitea erabakiko du. Plebeioz jantzita, ihesaldian Mecha saltzaile ibiltaria ezagutuko du, eta haren laguntzaz Olinpiar Jokoa prestatzeko hasiko da. Bere asmoa Jokoa irabazi eta aitaren plana zapuztea da. Bien bitartean suge gaiztoa, Begibakar Kapitainaren laguntzarekin, Igelolinpiar Jokoa bertan



Sarrera, 3 euro. Egunean bertan egongo dira Sutegin salgai.

behera uzteko eta erresuma bereganatzeko plana abian jarriko du. Mecha eta Printzesa suge gaiztoaren asmoa ezagutu eta erresuma babesten ahaleginduko dira".

## Euskal Herriko Mus Txapelketako saioa

Aginagaren ondoren, Usurbilen txanda. Euskal Herriko X. Mus Txapelketako sailkatze proba ostiral honetan ospatuko da, 22:00etan Aitzaga Elkartean. Saizar Sagar dotegiak lagundutako ekimenean, bikote parte hartzaileentzako izen ematea ordu erdi lehenago zabalduko da, 21:30etan. Informazio gehiago: ehmus.eus



Ostiral honetan, 22:00etatik aurrera Aitzagan.

### Datozenak

#### "Euskaraldia" antolatzeko bilera

Euskal Herri mailako ekimenarekin bat egin du Usurbilek ere. Otsailaren 7ko bilera irekia izango da, herri osoari zuzendua.

- Eguna: otsailak 7 asteazkena.
- Ordua: 19:00.
- Tokia: Potxoenea.
- Informazio gehiago: euskaraldia.eus
- Deitzailea: Usurbilgo Udala eta euskalgintzako herri eragileak.

#### Bihurri ludotekako bazkidetza ordaintzeko garaia

2018ko kuota ordaintzeko epea otsailaren 28an amaituko da. "Bazkide berriek 30 euro pagatu behar dituzte eta jada bazkide direnek 10 euro". Ordaintzeko ondoko kontu zenbaki honetan egin behar da: ES3230080259103545905527 (Rural Kutxa).

Zalantzak argitzeko edo proposamenak egiteko, ludotekako tabloira jo dezakezue edo ondoko helbidera mezua bidali: bihuririludoteka@gmail.com

#### Utziko dutenentzat oharra

Azkenik, ludoteka utziko duten gurasoei oharra: "ludotekako bazkide izateari uzten dioten familiei giltza itzuli dezatela eskatzen diegu".

# ELORZA

OBRAK ETA  
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

## ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax. 943300045

## Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

Info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com

600 024 825



# URDAIRA

## Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak Gra  
TXOTX-GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa

Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrel  
sagardo hoberenak eskeintzen.

Iruin, beti zugandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubieta

# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

## aginaga

### SAGARDOTEGIA

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!

ASTELEHENETAN ITXITA



### 943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!



100% bertako sagarra

### Tel: 943 365 031

Santuenea





ikastolenelkartea

# Udarregi 50

## IKASTOLA

### **Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:**

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua. Konfiantzaren Pedagogia egitasmo pedagogikoa garatzen dugu 3-6 urteko haurren geletan.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- **KiVa Ikastola gara:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean dugu 2017ko urtarriletik aurrera beste 51 ikastolekin batera.
- Irakaskuntza Eleanitza: D eredu; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: Bertan sukaldatutako menuak (adin guztietarako) eskaintzen ditugu, herriko eta inguruko ekoizleen elikagaiak zerbitzatuz bazkaltiarrentzat. Honela, herriko ekoizleen produktuen kontsumoa sustatzearekin batera, elikadura arduratsu eta osasuntsuaren baloreak indartzen ditugu.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza, xake.

50 urteko esperientzia Usurbilen.

## **Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)**

## **Urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra (biak barne)**

**HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6**

**LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12**

**DBH: 12 - 16**



**943 361 216**

**Udarregi Ikastola**

Gernika ibilbidea. USURBIL

[www.udarregi.eus](http://www.udarregi.eus)